



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko azaroaren 11

134. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/DEC-00047. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Diabetesaren Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-25/PES-00327. Galdera, lesioen edo patologien jatorria lanekoa ez dela uste izateagatik Gizarte Segurantzaren mutua laguntzaileek pazienteak deribatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—11-25/PES-00328. Galdera, Sesman paratu nahi den biometanizazio-plantari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—11-25/PES-00332. Galdera, Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019-2030 Plan Zuzentzailea berrikusteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—11-25/PES-00333. Galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Ba tzarrean parte hartzeagatik konpentsazio ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—11-25/PES-00334. Galdera, Acciona enpresaren eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—11-25/PES-00335. Galdera, Alkozko zentroko adingabeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—11-25/DPGC-00001. Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2025eko eztabaida antolatze arauak (11. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/DEC-00047. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Diabetesaren Mundu Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Diabetesaren Mundu Egunarekin, eta urdinez argiztatu du bere egoitzaren fatxada heldu den azaroaren 14an. Eta ekitaldi bat eginen du egun horretan, 9:00etan, ANADIrekin batera.

2. Nafarroako Parlamentuak erakunde eskudunak premiatzen ditu diabetes gaixotasunari aurrea hartzeko politikak sustatzen jarrai dezaten.

3. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du gaixoen eta profesionalen diabetes arloko benetako prestakuntza eta hezkuntzarako neurriak sustatzea.

4. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du diabetesa sendatzeko ikerketa sustatzeko neurriak bultzatzen jarraitzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela diabetesaren ikusgaitasuna sustatzea, eta aldeztu egiten ditu ANADIk Diabetesaren Mundu Eguna dela-eta egunotan antolatu dituen jarduerak”.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/PES-00327. Galdera, lesioen edo patologien jatorria lanekoa ez dela uste izateagatik Gizarte Segurantzaren mutua laguntzaileek pazienteak deribatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, lesioen edo patologien jatorria lanekoa ez dela uste izateagatik Gizarte Segurantzaren mutua laguntzaileek pazienteak deribatzeari buruzkoa, 2025eko irailaren 19ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateekiko harremanari buruz (11-25/PES-00327). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Ba al dago Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateetatik O-NOZera bideratutako pazienteen erregistrorik, edo haien gaixotasunak edo lesioak lanekoak ez direla argudiatuta mutualitate horiek artatu ez dituzten pertsonena?

Gaur egun, laneko istripu baten edo lan-esposizio baten ondoriozko osasun arazoak izanik dagoen Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateak artatu gabeko langile guztiak biltzen dituen erregistrorik ez dago Nafarroan.

Mutualitateek jatorri laboraleko osasun arazoari arreta ez emateak hiru kausa posible ditu:

1.- Arreta sanitarioa eman ondoren (orokorki, lehen kontsulta), mutualitateak adieraztea langilearen osasun arazoaren jatorria laborala ez dela, eta kasua Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura bideratzea.

2.- Enpresak langileari dagokion sorospen bolantea eman nahi ez izatea, mutualitateak langileari arreta eman diezaion (ezinbesteko baldintza izanik hori Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek kasuari hel diezaioten). Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ematen dio arreta langileari.

3.- Langileak ez eskatzea enpresari sorospen bolantea emateko. Kasu honetan ere Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ematen dio arreta.

Nafarroan ez dago aipagai ditugun kasu guztien datuen erregistrorik, baina Lan Osasunaren Alorreko Zaintza Epidemiologikorako Programa bat dago, Nafarroan Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek artatu gabeko eta, beraz, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura deribatutako (patologia laborala delako susmoak direla eta) pertsonen GUTXIENKO kasu kopuruari buruzko informazioa ematen duena.

Lan Osasunaren Alorreko Zaintza Epidemiologikorako Programa Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) garatutako programetako bat da. Programa horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan artatutako patologia jatorri laboralekoa delako susmoen kasuen deklarazioa jasotzen du, osasun alorreko profesionalek BORONDATEZ aitortuta egonik eta langileen baimena izanik.

Programari aitortutako iturri nagusia lehen mailako arretan diharduten medikuak dira. Ondoren, NOPLOIko ikuskaritza medikoko profesionalak daude, eta, azken buruan, langileak berak.

Aitortutako osasun arazoaren bi talde handi bereizten dira:

A.- Gaixotasun profesionaleko susmoa. Programak osasun arazo hauen aitortzea jasotzen du:

- Sorbaldako mahukatxo birakariaren patologia
- Eskumuturreko edo ukondoko tendinitisa
- karpoko kanalaren sindromea
- Dermatosi profesionalek
- Asma okupazionala
- Ahots-patologia

B.- Lan-baldintzekin lotutako beste osasun arazo batzuk: arrisku psikosozialen eraginpean egoteko probabilitatearen ondoriozkoak; lan jarduerarekin lotutako algiak; lanpostua egokitu beharra; eta laneko istripuekin lotutako problematika desberdinak.

Hala bada, zenbat paziente bideratu dira edo ez dituzte artatu Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek eta Nafarroako Osasun Zerbitzutik tratatu behar izan dira, mutualitate horiek diotelako lanekoak ez diren lesioak edo patologiak dituzten pazienteak direla, 2024an eta 2025ean?

Erantsitako taulan, osasun arazoaren talde bakoitzean Zaintza Epidemiologikorako Programari modu nominalean aitortutako kasuen kopurua ageri da.

	GAIXOTASUN PROFESIONALEKO SUSMOA	BESTELAKOAK (B TALDEA)
2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra	1301 kasu	923 kasu
2025eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era	706 kasu	527 kasu

Aitortutako gaixotasun profesionala dagoelako susmoa eragin duten arrazoi klinikoak (A taldea)

Patologia mota	2024ko urtarrilaren 1etik	2025eko urtarrilaren 1etik
DERMATOLOGIKOA	58	44
MUSKULOESKELETIKOA	1209	639
ARNAS APARATUKOA	5	4
AHOTS SINTOMAK	29	19
GUZTIRA	1301	706

Gaixotasun profesionaleko susmotzat jotako kasu horietatik, osasun arazoengatik mutualitatera joan ez zirenak mutualitateetara bideratu ziren (aldez aurretik langileei jakinarazten zaie sorospen bolantea eskatu behar diotela enpresari mutualitatera joateko). Mutualitateek honela erantzun dute:

MUTUALITATEEN ERANTZUNA	2024 osoa	2025/06/30era
MUTUALITATEEK ONARTUTAKO	143 (% 21,1)	48 (% 17,1)
MUTUALITATEEK BAZTERTUTAKO	216 (% 31,8)	102 (% 36,4)
MUTUALITATEAK EZ DU ERANTZUTEN	225 (% 33,1)	73 (% 26,1)
BESTE BATZUK	95 (% 14)	57 (% 20,4)
Mutualitateetara deribatutako kasuen guztizkoa	679	280

*Bestelakoak: enpresak sorospen bolanterik igortzen ez dueneko edo langileak mutualitatera joan nahi ez dueneko kasuak

B taldearen barnean (hots, lanarekin lotutako beste osasun arazo batzuk), kasuetako ugari lane-ko istripuekin lotuta dago. Horren bi kausa posible-ak dira, batetik, mutualitateek ez dutela onartzen istripuaren ondoriozko lesioa, eta bestetik, enpre-sak ez duela dagokion sorospen medikoaren partea ematen mutualitateak osasun arreta eman dezan. Hala, 2024an 203 kasu izan ziren (% 22), eta 2025eko ekainaren 30era arte, berriz, 146 (% 27,7).

Laburbilduz, eta Lan Osasunaren Alorreko Zain-tza Epidemiologikorako Programari aitortutako infor-mazioa kontuan izanik, GUTXIENEZ 1000 pertsona artatu zituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2024an, eta 500, berriz, 2025eko ekaina-ren 30era arte.

Erregistro hori ez badago, zer tresnaren bidez kontrolatzen ditu O-NOZek deribazio horiek, eta nola egiaztatzen du Gizarte Segurantzarekin elkarla-nean diharduten mutualitate horiek artatzen ez dituzten pazienteen lesioak edo patologiak lanetik kanpokoak direla?

Gaur egun ez dago Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak langileen artean artatutako patologia jatorri laborekoa dela egiaztatzeko baliabiderik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentu-ko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatuta-koa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00328. Galdera, Sesman paratu nahi den biometanizazio-plantari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artiku-luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Mena Blasco jaunak Sesman paratu nahi den biometanizazio-plantari buruz egindako gal-deraren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Gal-dera 2025eko irailaren 19ko 105. Nafarroako Par-lamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

PSN/PSOE talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak 11-25/PES-00328 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Sesman proiektatutako biometizazio instala-zioaren ingurumen-baimen integratuaren egoerari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Inguru-meneko kontseilariak horri buruz ematen dion infor-mazioa:

“Biometanizazio eta Bioongarri Instalazioa Sesman” proiekturako ingurumen-baimen integra-tua emateko prozedura (0001-0038-2024-000002 administrazio-espeditentea) fase honetan dago gaur egun:

Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzua ebazpen proposamena idazten ari da, martxoaren 30eko 26/2022 Foru Dekretuaren 19. artikuluari jarraikiz (dekretu horren bidez onesten da Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea gara-tzen duen erregelamendua). Ebazpen-proposamen hau Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari aurkeztuko zaio azter dezan, ingurumen-baimena emateko eskumena duen organoa baita hori, 26/2022 Foru Dekretuaren 20. artikulua araberara.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kon-seilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00332. Galdera, Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019-2030 Plan Zuzentzailea berrikusteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019-2030 Plan Zuzentzailea berrikusteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 26ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2019-2030 Nafarroako Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko Plan Zuzendariaren gainean eskatutako informazioari buruz (11-25/PES-00332). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

1.- Zenbat alegazio aurkeztu zaizkio Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko Plan Zuzendariaren berrikuspenari?

Guztira 23 proposamen jaso dira; horietako zazpi Gobernu Irekiaren atariaren bidez egin ziren; beste hamabost, berriz, Nafarroako Gobernuaren instantziaren medioz; eta bat, azkenik, NILSaren bitartez.

Hauek izan ziren Gobernu Irekiaren atariaren bitartez egindako proposamenak:

- Tuterako Uren Udal Batzarreko kalitateko teknikariarena, 2025/05/15ean aurkeztua.

- Ubagua Berpiztu/Recuperando el Ubagua elkartearena, 2025/06/3an aurkeztua, 1. ekarpenarekin.

- Ubagua Berpiztu/Recuperando el Ubagua elkartearena, 2025/06/3an aurkeztua, 2. ekarpenarekin.

- Deierriko Udalarena, 2025/06/5ean aurkeztua, Deierriko alkatetzaren ebazpena eta 2 ekarpen barne hartzen dituen dokumentu batekin.

- Errezuko kontzejuarena (Deierri), 2025/06/5ean aurkeztua.

- Salvemos el Ega-Ega Bizirik elkartearena, 2025/06/6an aurkeztua.

- Moncayoko Uren Mankomunitatearena, 2025/06/6an aurkeztua.

Hauek izan ziren Nafarroako Gobernuaren instantziaren bitartez egindako proposamenak:

- Abaigarko Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/04an.

- Antzingo Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/06an.

- Barbaringo Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/06an.

- Etaiuko Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/02an.

- Genevillako Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/05ean.

- Iguzkitzako Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/04an.

- Lanako Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/03an.

- Legariako Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/02an.

- Lukingo Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/06an.

- Murietako Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/03an.

- Okoko Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/02an.

- Olexoako Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/02an.

- Piedramillerako Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/06an.

- Santsolgo Udalarena, Nafarroako Gobernuari instantzia bidez aurkeztua 2025/06/06an.

- Natividad Cebrián Guajardorena, Tuterako Uren Udal Batzarreko Tuterako EUAko laborategiko arduradun gisa, 2025/05/09an instantzia bidez aurkeztua, baita NILSaren posta elektronikora ere.

Hauek izan ziren NILSaren posta elektroniko bidez egindako proposamenak:

- Cortesgo Udalarena, NILSaren posta elektronikora bidalitako mezu elektroniko bidez.

2.- Zein izan da berrikuspen hori dela-eta egindako parte-hartze prozesuen emaitza? Zenbat alegazio onartu eta jaso dira behin betiko testuan?

Plan Zuzendariaren berrikuspen dokumentua eta haren eranskinak parte-hartze publikoaren mende jarri ziren 2025eko maiatzaren 7an, eta ekarpenak 2025eko maiatzaren 7tik ekainaren 6ra bitarte egin ahal izan ziren. Ekarpen horiek Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren atarian argitaratu ziren.

Aldi berean, parte hartzeko hiru topaketa egin ziren:

– Martzillan, 2025eko maiatzaren 14an, Martzillako Gazteluan.

– Iruñean, 2025eko maiatzaren 16an, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian.

– Lizarran, 2025eko maiatzaren 21ean, Jurrmendiko Mankomunitatearen bulegoetan.

Hiru topaketa horietan, lehen seiurtekoaren jarraipenaren emaitzen eta hurrengo seiurtekorako berrikuntzen eta plangintzaren lehen azalpen orokorra egin zen. Gainera, Martzillako Erriberan Nafarroako ubidearekin konektatzeko alternatibak ere azaldu ziren, bai eta Nafarroako ubidea Lizarrako Erriberarekin eta Izarbeibarko Mankomunitatearekin konektatzeko aztertutako alternatibak ere.

Azalpen horiek guztiak gardentasunaren atarian argitaratu ziren, Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian.

Guztira, 58 pertsonak hartu dute parte: 24 emakume (% 41) eta 34 gizonek (% 59). Ez ditugu parte-hartzaile gisa bildu saioetan parte hartu duten ekipo teknikoko kideak:

– Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuko bi pertsona.

– NILSAko lau pertsona.

– Enpresa dinamizatzaileko bi pertsona (Garraio SL).

Aurreko puntuan adierazitako proposamenei emandako erantzunak III. ERANSKINA izeneko dokumentuan jaso dira.

3. Egaibarko udalek, partikularrek eta gizarte-eragileek aurkeztutako alegazioak aintzat hartzea aurreikusten al duzu?

Hala ere, hiru proposamenei egindako erantzunak honako hauek dira:

Proposamena: 2019tik 2030era bitarteko Plan Zuzendarian adostutakoa BETETZEA, EUAren obra 2025-2030 bigarren seiurtekoan hasiz, Lokizko erauzketek dakarten ingurumen presioa ahalik eta

azkarren askatzeko, zehazki, Mendazan aurreikusitako erauzketak murrizteko, edo bestela esanda, Nafarroako ubidearekiko konexioa bizkortzeko, etorkizun hidrikoa segurua izanen dela eta gure inguru-nea errespetatuko duela bermatuz.

Erantzuna: Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren Plan Zuzendariaren berrikuspenak Edateko Uren Araztegiko –EUAKo– obrak plangintzaldiaren bigarren seiurtekoan hasiko direla aurreikusten du. Aurreikuspenak aurrerakada adierazgarria dakarkio hornikuntzarako azpiegitura estrategikoen finkapenari, Nafarroako uraren ziklo osoaren hobekuntza progresibo eta planifikatu baten aldeko konpromisoa.

Proposamena: 2019tik 2030era bitarteko Plan Zuzendariko jatorrizko inbertsioak LEHENGORTZEA, Estellerriko Erribera hornitzeko Nafarroako ubidearekiko konexioaren eroapenei eta EUARI dagokienez: 12.000.000 €. Plan Zuzendaria berrikusteak eta Itoiz-Nafarroako ubidea konexio horretarako funtsak berresleitzeak, funts-funtsezko soluzio bat atzeratzeaz gainera, ingurumen-jasangarritasunik ezeko egoera bat –Ega ibaian eta Lokizko akuiferoan ondorio larriak dituen– ere betikotzen dute.

Erantzuna: 2. alternatiba aukerarik onena da Nafarroako ubidetik Estellerriko Erribera hornitzeko, kalkulaturako inbertsioa 16,62 milioi eurokoa izanik (BEZik gabe), erregulazio putzu propio bat eraikitzea barne hartuta.

Gaur egunean, Jurrmendiko Mankomunitatearen esparruko udalerrri batek ere ez du kontzesiorik Itoizko urtegitik, eta horrek baldintzatu egiten du jarduketaren bideragarritasun administratiboa.

Soluzio hori gauzatzeko, funtsezko hiru baldintza bete behar dira:

1. Lokizko akuiferoarekin konektatzea aurretiaz (Mendazako putzua):

Plan Zuzendariak ezartzen duen bezala, lehen-tasunezkoa da Estellerriko Erriberako herriak kalitate handiko lurpeko baliabideez hornitzea ahalbidetuko duten jarduketak osorik burutzea.

Jarduketa hori hasiera batean lehen seiurtekorako aurreikusita bazegoen ere, haren exekuzioa birprogramatu egin behar izan da Estellerrian inbertsio ugari daudelako kontzentratuta eta horrek Toki Inbertsioen Planean Nafarroa osorako eskuragarri diren funtsen ehuneko handi bat xurgatu zuelako.

Gauzatzeko geratzen dira jarduketa hauek: Vianarako hornikuntza (2025), Vianatik Mendabiarako eroanbidea (2028-2030) eta Mendabiatik Lodosarako deribazioa (2023tik aurrera).

2. Hornidura emakida aldatzea ltoiztik:

Jurramendiko Mankomunitatearen emakida eskabidea 2013an hasi zen, baina ebatzteke geratzen da, oraindik ere, 2025ean. Testuinguru horretan, aldaketa eskabide berri batek atzerapen berriak sortzeko arriskua dakar berekin, eta horrek eragin nabarmena izanen luke aurreikusitako exekuzio epeetan.

3. Azpiegiturak exekutatzekeko prestasun ekonomikoa:

Jarduketak 16,6 milioi eurotik gorako inbertsioa eskatzen du (BEZik gabe), gaur egun Plan Zuzendariaren bigarren seiurtekoaren plangintza ekonomikoan jasota ez dagoen inbertsioa, hain justu.

Horrenbestez, 2. alternatiba teknikoki sendoa eta epe ertainean bideragarria den arren, bigarren seiurtekoaren barnean exekutatzea ez da errealista, gaur egungo administrazio eta aurrekontu mugak direla eta. Alabaina, emakidaren tramitazioa arintzea lortuz eta Planaren etorkizuneko berrikuspenetan dagokion inbertsioa lehenetsiz gero, hurrengo plangintzaldian obrak hasteko kondizioak sor litezke.

Proposamena: Lokizko akuiferoko erauzketen inpaktua eta horiek Ega ibaiaren emari zirkulatuaren duten afekzioa urtero ANALIZATZEA, xehetasun-azterketa baten bidez. Planaren jarraipen-batzordeak landutako dokumentazioaren parte izan behar du azterketa horrek, Nafarroako Foru Gobernuak urtero sortu beharreko Memoriari eranstean gainera.

Erantzuna: Erauzketei eta Lokizko akuiferoaren eta Ega ibaiaren egoerari jarraipen tekniko xehatua egiten zaie urtero. Etengabeko analisi horri esker, ur-baliabideen bilakaera balora daiteke, horien kudeaketa jasangarria bermatzeaz gainera.

Ega ibaiaren emariak: hidrometriaren kontrol sareari buruzko memoriak:

(https://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Agua/Documentacion/Memorias/RedFonologica.htm)

Ega ibaiaren egoera ekologikoa: azaleko uren kalitate sarearen egoera ekologikoari buruzko memoriak:

(https://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Agua/Documentacion/Memorias/estadoecologico.htm)

Lokizko akuiferoaren mailak eta egoera: piezometriaren kontrol sareari buruzko memoriak:

(https://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Agua/Documentacion/Memorias/RedPiezometria.htm)

Jurramendiko Mankomunitatearen erauzketak Lokizko akuiferotik: Plan Zuzendariaren jarraipen memoriak:

(<https://administracionlocal.admon-cfnavarra.es/areas/SIL-SEGUIMIENTO-PLAN-DIRECTOR/default.aspx>)

Haatik, gaur egun ez dago daturik honako hauei jarraipen sistematikoa egiteari buruz: lehenik, Ega ibaiaren goialdean ureztatzaileek egindako erauzketak, nola Araban hala Nafarroan; bigarrenik, Egaibar inguruko nekazaritza erauzketak; eta hirugarrenik, Antzingo industrialdeko putzuarekin lotutako erauzketak. Bilketa horiek –agorraldietan Ega ibaiaren emariaren gaineko presio nagusiak direnak– ez dira Plan Zuzendariaren eskumen esparruaren barnekoak.

4.- Berreskuratuko al da Nafarroako Ubidea hornidura-sistemearekin lotze aldera Plan Zuzendariaren jatorrizko testuan aurreikusita zegoen 12.000.000 euroko inbertsioa, ala 1.000.000 euro utziko dira 2030etik aitzina gauzatzeko denbora-mugarik gabe?

Aurreko puntuan adierazi den bezala, Nafarroako ubidearekin lotzeko alternatiba teknikoki sendoa eta epe ertainean bideragarria den arren, bigarren seiurtekoaren barnean exekutatzea ez da errealista, gaur egungo administrazio eta aurrekontu mugak direla eta. Alabaina, emakidaren tramitazioa arintzea lortuz eta Planaren etorkizuneko berrikuspenetan dagokion inbertsioa lehenetsiz gero, hurrengo plangintzaldian obrak hasteko kondizioak sor litezke.

5.- Noiz aurreikusten da onestea Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko Plan Zuzendariaren berrikuspena?

Nafarroako Gobernuaren asmoa da 2025a amaitu aurretik berrikuspena onesten saiatzea.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 14an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00333. Galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarrean parte hartzeagatiko konpentsazio ekonomikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Ba tzarrean parte hartzeagatiko konpentsazio ekonomikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 26ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-25/PES-00333 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Klima Aldaketaren Nafarroako Herritar Batzarrean parte hartzeagatiko konpentsazio ekonomikoari

buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Klima Aldaketaren Nafarroako Herritar Batzarra arautzen duen maiatzaren 7ko 142E/2024 Foru Aginduaren –Landa garapeneko eta ingurumeneko kontseilariak emandakoaren– 3. artikulua ezartzen duen bezala, aurreikusita dago ordainketak prozesuaren amaieran gauzatzea; prozesua amaitzeko, gomendio txosten bat Nafarroako Parlamentuan entregatuko da.

Gaur egunean, aipatutako txostenaren idazketa eta txostena Nafarroako Parlamentuan aurkezteko prozesua azkentzen ari dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 14an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00334. Galdera, Acciona enpresaren eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Acciona enpresaren eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 26ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita

dagoen foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-00334 galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernuako lehendakariak horri buruz jakinarazten diona:

Idatziz erantzuteko 11-25/PES-00216 galderari –2025eko abuztuaren 29ko 97. PNAOn argitaratu zen–, emandako erantzunean esan zen eran, Accionako pertsona hauek parte hartu zuten 2020ko urriaren 20ko bilkuran: Justo Vicente Pellegrini eta Félix González Yague.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: María Chivite Navascués

11-25/PES-00335. Galdera, Alkozko zentroko adingabeei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Alkozko zentroko adingabeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 26ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak informazio eskaera egin du 11-25/PES-00335 eskaerari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Zenbat adingabe iritsi dira Alkozko zentrorra galdera honi erantzuten zaion egunera arte?

Nazioarteko asilo eta aterpe programen eskumen eskusiboa, horien informazioa barne hartuta, Espainiako Gobernuari dagokio.

Hurrengo egunetan gehiago iritsiko direlako ziurtasunik ba al daukazue?

Nazioarteko asilo eta aterpe programen eskumen eskusiboa, horiei buruzko informazioa barne hartuta, Espainiako Gobernuari dagokio.

Gehiago iristen baldin badira, non hartuko dute ostatu, Alkozko zentroan ala beste zentzoren batean? Beste zentzoren bat baldin badago, non dago kokatua?

Nazioarteko asilo eta aterpe programen eskumen eskusiboa, horiei buruzko informazioa barne hartuta, Espainiako Gobernuari dagokio.

Nor ari da bere gain hartzen arrazoi horrek sortutako era guztietako kostu ekonomikoak?

Espainiako Gobernuak arduratzen da asilo eta aterpea nazioartean babesteko programen gastu guztiak finantzatzeaz.

Transferitu al du dagoeneko Espainiako Gobernuak dirurik Nafarroara iritsi diren eta/edo iritsiko diren adingabeak mantentzeko?

Espainiako Gobernuak ez du inolako transferentziarik egin behar asilo eta aterpeko nazioarteko babes programetako adingabeentzat, horien finantzaketa oso-osorik hartzen baitu bere gain.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 14an

Hirugarren lehendakariorde eta etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

11-25/DPGC-00001. Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2025eko eztabaida antolatzeko arauak

2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Aldatzea 2025eko azaroaren 13an eta 14an eginen den Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida antolatzeko arauak; zehazki, azaroaren 13ari dagokion seigarren paragrafoa. Honako testu hau izanen du:

“Talde parlamentario bakoitzak gehienez ere bost proposamen aurkezten ahalko ditu. Proposamenak Nafarroako Parlamentuko Erregistro Elektronikoan aurkeztuko dira, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez. Halaber, sinatzaileek proposamen horiek bidali beharko dituzte egoki den unean adieraziko zaien posta elektronikoko kontu batera. Proposamenak aurkezteko epea 15:00etan amaituko da. Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, Mahaiak eztabaidagaiarekin koherente diren proposamenak onartuko ditu, eta taldeen eledunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten”.

leek proposamen horiek bidali beharko dituzte egoki den unean adieraziko zaien posta elektronikoko kontu batera. Proposamenak aurkezteko epea 15:00etan amaituko da. Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, Mahaiak eztabaidagaiarekin koherente diren proposamenak onartuko ditu, eta taldeen eledunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten”.

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari eta talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
